

### EUSKALTZAINDIAREN HIZTEGIA (PAPEREAN ETA INTERNETEN)

*Euskalkietatik nahiz egungo bizimodutik euskararen ohiko moldeetan errotu diren hitz horiek sistematizatzen eta egokitzten saiatu da Euskaltzaindia betidanik eta horretara dator sorreratik bertatik egin duen lexikografia arauemailearen lana. Horren segidakoa da hau (...). Euskaltzaindian ekoizten den material oro gizartearen eskura jarri nahi dugu, eta, aurrerantzean ere, ildo horretatik jarraituko dugu. (Urrutia)*

*Europako beste hiztegi batzuen parekoa da, modernoa, aberatsa eta erabilgarria. (Andoni Sagarna)*

#### **Zenbait gogoeta:**

Orain dela bi urte *BOSTAK BAT* taldearen *Sinonimoen Hiztegia* (Adorez 14) eta *Eskola Hiztegia-Oinarrizko hiztegia* (Adorez 15) aldizkari honetan aurkeztu nituenean, honako hau gogoratzen nuen *Urrats berriak lexikografia alorrean* deitu nuen lanean:

*Euskaltzaindiak, 'Orotariko Euskal Hiztegia' eta 'Hiztegi Batuko azken zerrenda' argitaratu ondoren, duela urtebete*

*definiziozko HIZTEGIA jendearen esku jartzea urrats garrantzitsua izan da euskarako hiztezigintza alorrean lanean ari garenontzat. Hain zuzen ere, Euskaltzaindiaren hiztegi berritan terminoen adierak zehaztu eta erabilerak egokiro ta-xutzen direlako. Aukera paregabea eskaini zaigu gure zalantzak argitzeko eta Euskaltzaindiaren proposamenen arabera gure hiztegiak berriztatzeko.*

Oraingo honetan Euskaltzaindiak aurkeztu berri duen *Euskaltzaindiaren Hiztegia* (Bilbo: 2016/10/06) aurkeztu nahi dizuet bide batez zenbait gogoeta eginez. 2012an eman zion hasiera Euskaltzaindiak bere euskara-euskara hiztegia jende aurrean jartzeari. Epe laburrean beste urrats bat eman du hiztegi hura zeharo aberastu eta ekarpen zoragarria gure esku jarritz. Hori horrela, euskaldunok ere esan dezakegu badugula esku-ra definiziozko euskal hiztegi arautu eder bat.

Hiztegi arautua, diot, baditugulako lehenagotik eginak definiziozko hainbat hiztegi. Guk geuk *-BOSTAK BAT* taldeko ki-deok- argitaratuak ditugu dagoeneko euskarazko definiziozko hainbat hiztegi. 1986an *Euskararako Hiztegia* –definiziozko lehen hiztegia– argitaratu genuenetik jo eta ke ekin diogu ar-loa jorratzeari, halako hainbat hiztegi plazaratuz: *Euskararako hiztegia* (Adorez 2, 1986); *Euskararako Hiztegia. Oinarrizkoa* (Adorez 4, 1990); *Eskola Hiztegia. Irudiduna* (Adorez 5, 1991); *Europa Hiztegia. Eskola berrirakoa* +CD-ROM (Adorez 6, 1993); *Eskola Hiztegia. Irudiduna. Berriztatua, eguneratua* (Adorez 5\*, 2005); *Euskal Hiztegia* (Adorez 13, 2011); *Eskola Hiztegia: Oinarrizko hiztegia* (Adorez 15, 2014)

Beste hainbatek ere jorratu dute alor hau azken urte hauetan. Gure ondoren lehena *Elbuyar* izan zen 1993an argitara eman baitzuen *Hiztegi entziklopedikoa*. Ibon Sarasolak ere garai haietan burutu zuen bere *Hautalanetarako hiztegia*. Gerrogo etorriko ziren hor-hemenka beste hainbat ahalegin, ba-tez ere eskola-munduko beharrezanez erantzutera bideratuak,



esaterako, Eskoriatzako Irakasle Eskolak argitaratutako *Lehen Hiztegia* (1992). Aipatzekoak ditugu, baita ere, *LUR Hiztegi entziklopedikoa*, *HARLUXET hiztegi entziklopedikoa*, *AUÑA-MENDI Eusko Entziklopedia* eta abar.

Hala ere, hiztegi guzti horiek eskura izan arren, aparteko garrantzia izan du Euskaltzaindiak azken urte hauetan burututako lanaren ondorioz behingoz hiztegi arautua argiteratzeak. Hain zuzen ere, sarrerako termino arautuak eskaintzeaz gainera, termino horien erabilera ere zehaztu eta arautzen duelako. Aldi berean, gainerako hiztegietan baino askozaz adibide gehiago jasotzen ditu. Horrek erabiltzaileari altxor eder bat jarzen dio esku artean.

Bestalde, esan beharra dago, hiztegi gintzan halako emaitza ederrak argitara eman direnean, ezkutuan etengabeki, urteak joan urteak etorri, hainbatek burututako lan oparoa azaleratzen

delá. Hala aitortu zuen Andres Urrutia euskaltzainburuak liburuaren aurkezpenean, hiztegi hori ez zela gutxi batzuen emaitza, askoren izerdiz ongi hornitutako lana baino nabarmenduz:

*“Nolanahi ere, lan hau ez da pertsona bakar baten emaitza, lantalde oso batena baino. Hurrenez hurren, partaide eta egile izan dira euskaltzain oso (oraingoak eta lehenagokoak), oborezko, urgazle, laguntzaile eta abar, Akademiaren zerbitzuetako norbanakoekin batera. Horien gertuko, Euskaltzaindiaren Hiztegia aurrera eramateko Osoko bilkuraren esku ematea izan duen Batzorde Abaldunduaren kideak eta aldameneko Egitasmoaren parte-hartzaileak, argitaratze bidean aritu izan direnak ere alboan utzi gabe”.*

Bide batez, urrats berri eder horrek baduela aurretiaz arreta handiz burututako lan mardula gogoratu beharra dugu. Egin eginean ere, Euskaltzaindiak behin eta berriro eman digu aditzera egiten ari zen lanaren berri. Lan isila eta oparoa burutu ondoren, 2002an hasi eta gaur arte **Hiztegi Batua** deiturikoaren hiru argitaraldiek argitasunik ugari ekarri diete euskararen eremu ezberdinetan lanean ari direnei.

Komenigarri iruditzen zait zerrenda horien zehaztasun batzuk hemen aipatzea, geroago burutu den lanaren oinarri eta iturburu izan direlako. Hona hemen, bada, Euskaltzaindiak eskaini dizkigun zerrenda horiek kronologikoki aurkeztuta:

**2000. urtean:** lehen itzuliko zerrenda argitaratu zuen *Euskarra* aldizkarian. Bertan euskararen oinarrizko termino gehienak -orokorrak nahiz euskalki mailakoak- jaso zituen. Bide berri bat jarri zuen abian, euskal testugintzan nahiz hiztegi gintzan ari ginenoi terminoen idazkera arautua eskaintzean egundoko laguntza emanez. Dagoeneko zerrenda horretan 20.000 sarrera inguru ageri ziren araututa. Bertan termino arautuak eskaintzeaz gainera, nola erabiltzen ziren termino horiek eta zituzten beste zenbait nabardura ere eskaintzen zitzaizkigun. Baztertu beharreko hitzen edota gutxi erabiliak zirenen berri ere ematen



*Mirian Urkia, Andres Urrutia eta Leire Arago*

zitzagun. Era berean euskalkien eremuko hitzen berri ere bai, bide batez halakoen idazkera ere arautuz. Bide batez hainbat adibide eta esapide interesgarri ere eskaintzen dizkigu

**2008. urtean:** Euskaltzaindiak aurreko zerrenda zeharo ugarituta eskaini zuen. Hainbatek astiroegi ari zela uste izan arren, etengabeki ari zen lanean. Arreta handiz jokatu behar zuen, jakina, sarrerak ongi aztertu ondoren arautzeko. Oraingoan liburukiak 27.786 sarrera eta 4.165 azpisarrera jasotzen zituen. Benetan hurrats handia halako epe mugatuan burutzeko. Inoiz baino argiago ikusi genuen euskara batua edo estandarra taxutzen ari zela. Izugarritzko laguntza genuen lexikologia alorrean hiztegiak taxutu eta osatzen joateko.

**2010. urtean:** aurreko urteetan baino aurrerakada nabarmenagoa eman zuen Euskaltzaindiak. Bi urteren buruan, hainbat urteetan baino hitz gehiago araututa. Hori, hainbatetan, lanmetodoa aldatzearen ondorioz gertatu zen. Batzorde Ahaldundua sortu eta terminoen onarpenerako tramiteak bizkortzean hainba-

tean areagotu zen abiadura. Euskaltzaindiak abiadura handiko tren hartu zuela zirudien. Oraingoan, dagoeneko 36.016 sarrera eta 6.052 azpisarrera jarri zituen euskaldunon esku.

**2016an.** Urte honen hasierarako aztertuta zeuden *'bigarren itzulia'* deituriko zerrendako terminoak. Alabaina, ez zuen zerrendarik argitaratu paperean, sarrera guzti horiek ongi tratatu ondoren definiziozko hiztegian argitara emateko asmoa zuelako. Guztiek batu eta azken orduko egokitzapenak eginda gero, 37.884 sarrera eta 6.944 azpisarrera jasotzen dituen pila handia osotu da. Guztira, 44.828 forma eta 61.398 adiera. Ez da zerrenda paperean argitaratu, aurrerantzean, sarrera hutsen ordez hiztegi definiziodunak eskainiko direlako.

### Definiziozko hiztegia

**Lehen argitaraldia (2012).** *Euskaltzaindiaren Hiztegia, adierak eta adibideak* liburua argitaratzea izugarritzko urratsa izan zen. Aspalditik euskaldunok amets egiten genuena egia bihurtu zen. Euskaltzaindiak bide berri bat urratu zuen inguruko hizkuntzetako akademiek egin ohi duten bidetik hizkuntzako terminoak dagozkion argigarri guztiak erantsita aurkeztuz.

Definituta eskaintzen ziren sarrerei zegokienez, Euskaltzaindiaren lehen itzuliko sarrera-zerrendako terminoak eskaintzen diren. Horiek ziren, hain zuzen, euskaraz terminorik oinarritzkoenak. Era berean muga ezarri beharra zegoen hiztegia epe jakin batean barruan burutu eta jendearen esku jartzeko.

Liburuki horren *Aurre-bitzak* deritzanean, besteak beste, honako hauek irakurtzen ditugu:

*Inon bada hizkuntza akademia baten eginkizunik behinena, honexetan da, bain zuzen ere, hizkuntzaren lexikografiari bultzada ematen, estandar baten osatze eta mamitze aldera.*

*Izatez, horixe da aspaldiko gogoia euskararen akademian ere eta azken bizpabiru hamarkadako zeregina. Osoko Bil-*

*kuran zein hiztegi batzordeetan, behin eta berriro landu du Euskaltzaindiak lexikografia arauemailea, euskalgintzan ari direnei norabide ziorra eman nabian. Euskalkietatik nabiz egungo bizimodutik euskararen egunerokotasunean errotu diren hitz horiek sistematizatzen eta egokitzen saiatu da Euskaltzaindia etengabe, Hiztegi Batuan, alegia, estandar delakoaren hitz zerrenda erabilgarria osotuz.*

*Orain beste pauso bat eman du Euskaltzaindiak, euskararen normalizazio eta normatibizazio munduan. Hainbestez, euskara-euskara hiztegia lehenez argitaratu du, beste hizkuntzetan obikoa dena gurean ere plazaratuz, bots, euskaren hitzek dituzten adiera eta adibideak euskararen bidez emanik.*

*Hona, beraz, lehen oinarria, aldian-aldean egokitzen joango dena. Hona, beraz, euskaltzain askoren abalegina eta emaitza, azken batean, euskaltzain oso (oraingoak eta lebe-*



*Aurkezpenean bildutako jendea*

*nagokoak), urgazle, laguntzaile eta abar, partaide eta egile direlako, geroago azaltzen den moduan.”*

Espero zen moduan hiztegi horrek arrakasta handia izan zuen, batez ere irakasle eta pertsona gaituen kontsulta liburu gisa. Hala ere, zeukan tamaina zela bide ez dut uste egokia zenik gazteek eta erabiltzeko. Hiztegi gintzan lanean ari garenoi oso ongi etorri zitzaigun adierak egokiago taxutuz gure hiztegiak eguneratzeko.

**Bigarren argitaraldia (2016).** Aurten *Euskaltzaindiaren HIZTEGIA* bi liburukitan eskaini zaigu. Oraingo edizioa zeharo aberastua datorkigu, esan bezala bi liburukitan banatuta: 37.884 sarrera eta 6.944 azpisarrera, hau da, 44.828 forma eta 61.398 adiera. Lehenak zituen sarrerak (20.000) baino askoz ere gehiago.

Liburuaren aurkezpenaren berri ematean honako hau jasozten da: *“Oraingoan, alabaina, berritua eta zabaldua dator, aldian aldiko kontu esanguratsu batzuk barneraturik eta bereturik. Hortaz, “modernoagoa, aberatsagoa eta erabilgarriagoa izango da hiztegi berria”, egitasmoaren arduradunek prentsaurrekoan esan duten moduan. Akademiak urte luze-tan ondutako ahaleginen emaitza, moldatua eta itxuratua da Euskaltzaindiaren Hiztegia”.*

Guzti hori gogora ekarri ondoren, Euskaltzaindiak jendareko aurkezpena eginda gero sarean eskainitako txostenean honako hauek gogoratzen dizkigu:

*Euskara-euskara hiztegia da EH, eskaintzen dituen, artikulu bakoitzean, deskribatzen duen sarrera edo azpisarreraren kategoria gramatikalak, adierak, beren definizioekin, jostura-adibideak eta, dagozkionean, euskalki eta erregistro-markak, jakite-arloak, erabilerarako beste zenbait ohar, eta, bizidunei dagozkienetan, baita taxonak ere. Hitzen artean kidetasunen bat dagoela adierazteko, erreferentzia gurutzatuak*



*ezarri dira. Horren guztiaren helburua erabiltzaileari euskarra txukuna erabiltzen laguntzea da.*

*Hiztegi hau egiteko, guztiz baztertu dira aurreiritziak. Horren ordez, Euskaltzaindiak jasota dauzkan corpusetan jarri da oinarria: Orotariko Euskal Hiztegiak tradizioaren berri ematen digu, eta XX. eta XXI. mendeko erabilerarena XX. mendeko corpus estatistikoak eta Lexikoaren Behatokiak, hurrenez hurren.*

*Garrantzi berezia du hiztegi honen Interneteko bertsioak. Paperezkoaren eduki guztiak dauzka, euskarri digitalean kontsultak egiteko hainbat erraztasun eskaintzen ditu, eta, gainera, Euskaltzaindiaren baliabide lexikografiko guztiak eskuragarri jartzen ditu.*

*(...) Bilatu den formaz Euskaltzaindiak duen informazio guztia ere eskura daiteke hiztegitik irten gabe: forma arautzeko erabili diren irizpideak ‘Hiztegi Batu Oinarriduneari’, erabilera historikoa ‘Orotariko Euskal Hiztegiari’ eta erabilera modernoa ‘XX. mendeko corpusean’ eta ‘Lexikoaren Behatokian’. ‘Orotariko Euskal Hiztegiak’ 152.504 formari buruzko informazioa dauka, ‘XX. mendeko corpusak’ 4.655.300 testu-bitz eta 106.179 lema, eskuz landuak, eta ‘Lexikoaren Behatokiak’ 50.298.357 testu-bitz. Beraz, sakondu nahi duen orori aukera zabala eskaintzen dio EH-k.*

Bilbon, 2016ko urriaren seian, BBK Salan egin zen aurkezpenean, besterik beste, hiztegi honen prestakuntzan zuzeneko eskuartzea izan dutenek parte hartu zuten, Hiztegiaren nondik norakoak eta Euskaltzaindiak daraman lanaren berri emanez. Horrela, Andoni Sagarna jaunak, Euskaltzaindiaren Hiztegia (EH) egitasmoaren zuzendariak labur baina argi azaldu zuen lana burutzean eginiko ibilbidea. Leire Aragonek, bestalde, BBKk lehenengoko momentutik babestu zuela hiztegiaren proiektua gogoratu zuen.



*Andres Urrutia, Leire Aragon, Miran Urkia eta Andoni Sagarna*

Interesgarri iruditu zait, Mirian Urkia, *Hiztegi Batuko* lantaldeko arduradunak eginiko aurkezpen txostena eta Andres Urrutiak hiztegiari egiten dion sarrera hitzez hitz hona ekarri eta zuei eranskin gisa eskaintzea. Uste dut oso baliagarriak izango dituzuela bai hiztegiaren balioa barrutik ezagutzeko bai Euskaltzaindiak daraman lan-jardunaz ikuspegi zabala jasotzeko.

### **Eranskinak:**

#### **1. Mirian Urkiaren txostena.**

“Hiztegi honen xedea euskarazko hitzak txukun erabiltzen laguntzea da, bi eginkizun nagusi ditu:

- 1) hitzek zer esan nahi duten argitzea, eta
- 2) hitz horiek nola erabiltzen diren erakustea.

Eta horretarako informazio ugari aurki daiteke sarrera bakoitzean. Ia 45.000 forma arautu ditu hiztegi honek sarreratan eta azpisarreratan banatuta, eta informazio argigarri horitua dago horietako bakoitza: kategoria gramatikala, aditz-erregimena, euskalki-marka, espezialitatea edo jakite-arloa, erregistroa, onarpen-maila, adierak (definizioen bidez azaltzen direnak), izaki bizidunen izen zientifikoa, erreferentziak eta, noski, adibideak, azken hauek erabilera errealetan oinarrituta.

Paperean zein sareko kontsulta arruntean galdera egiten duenak eskuratuko du informazio guztia, hau da, **hiztegiaren kontsulta mota tradizionala** erabilita, hiztegiko sarrera galdetuta.

Adibidez:

**goiz 1 iz.** *Gauerditik eguerdi arteko denbora-bitartea, bereziki egunsentitik eguerdi artekoa. Goiza etorri zenean. Goiz, eguerdi eta arrats, beti porrusalda. Goiz guztiek dute beren arratsaldea. Goiz hartako egitekoak. Udaberriko goiz bat. Igande goiz zoragarri batean. Goiz guztia lanean igaro. Goiz osoa eman du etxean. Bihar goizean. Hurrengo goizetan. Goizean bost eta erdietan jaikita. Goizeko ordu bietan. Goizeko hamarretan. Goizeko ibintza. Goiz beranduan: eguerdi inguruan. Goiz gorri, arrats euri (esr. zah.).*

**2 adb.** *Egunaren lehen orduetan. Nora zoaz horren goiz? Bibaramunean goiz, ikasleei deitu zien. Eguzkia gero eta goizago agertzen zen. || Oso goiz da.*

**3 adb.** *Ordu edo garai ohikoa edo seinalatua baino lehen. Ik. goizik. Anton. berandu. Ordubete goizago jaikiz. Goiz etxeratzea. Goiz afaldu genuen. Goiz ala berant noiz joko nauen herioak, hori nik ezin jakin. Goiz basi zen bizibide eroso baten bila. Goiz ontzen diren pikuak. Goizago ohera zaitetz. Goizegi da zertan geldituko garen jakiteko. Neska-mutilen goizegiko barremanak.*

**goiz alba, goiz-alba Egunsentia.**

**goiz-arrats 1** adb. **Goiz eta arrats; egun guztia.** *Umeei ematen zaie goiz-arrats, ura arto irin lipar batez zurituri.* *Goiz-arrats ez zen isiltzen.*

**2 iz. pl. Goiza eta arratsa.** *Goiz-arratsetako freskura. Goiz-arratsetako otoitzak.* **goizdanik** adb. **Goiz, goizik.** *Bildotsak ez dira ernarazi behar bi urte beteak izan arte, bestela, goizdanik abultzen dira. Urrun etzatera ziboan odoletan eguzkia, goizdanik baitzen jaikia.*

**goizean goiz** adb. **Goizeko lehen orduan, goizean oso goiz.** *Goizean goiz atera ziren.* **goizean goizik** adb. **Goizean goiz.**

**goiz edo berandu** adb. **Lehenago edo geroago.** *Goiz edo berandu, altxatuko du burua. Goiz edo berandu, saiatu beharko zuen.*

**goizeko izar Artizarra.** || *Mutil horrekin ezkondu; horixe nire goizeko izarra.*

**goizetik** adb. **Goiz, egunaren lehen orduetan.** *Zergatik jaiki zara bain goizetik? || Goiz-goizetik zetorren oso eguraldi ederra.*

**goizetik gauera 1** adb. **Egun guztia.** *Goizetik gauera, jai eta aste, nire indarrak lan gogorrean urtzen.*

**2** adb. **Bat-batean, berehala.** *Usterik gutxien denean, goizetik gauera, etxe hori beste batena dela entzun du.*

[Hiru adiera ditu **goiz** sarrerak: izen kategoriakoa bat, adberbio kategoriakoak beste biak. Definizioaz gain, adibideak eta esaera zahar bat ere jasotzen du izenak ('goiz gorri, arrats euri'). Hirugarren adierak erreferentzia bi jasotzen ditu: ia sinonimo dena bata ('goizik') eta antonimoa bestea ('berandu'). Eta zortzi azpisarrera biltzen ditu ondoren, esapideak eta konposatuak sarrera bakarrean bilduta. Hemen ikus dezakegu 'goiz-arrats' azpisarreran bigarren adiera pluralean bakarrik erabiltzen dela, eta horren erakusgarri dira adibideetako erabilerak argigarriak.]

Baina hiztegi honek, sareko bertsioan, badu balio erantsi bat: **bilaketak eremu desberdinetatik egiteko aukera, bilaketa aurreratuaren bidez.**

Hiztegiak kontsultatzeko modua aldatu egin da, eta forma bakar batera mugatu gabe, gai baten inguruko bilaketak, bai eta bilaketa konbinatuak ere, egiteko aukera ematen du sareko *Euskaltzaindiaren Hiztegiak*. Hitz-bukaera bat eska dezakegu (-**tasun** bukatuak, esaterako), definiziozko hitz bat erabil dezakegu multzo semantiko batera hurbiltzeko ('ibilgailu' eskatuta 87 emaitza bueltatuko dizkigu, eta horien artean aurkituko ditugu ibilgailu motak (*aerogailu, ambulantzia, autokarabana, beribil,...*), eta horren inguruko sare semantiko osoa (*abiadura, autobide, azeleratu,...*), adibideetan bilaketak egin ditzakegu... Eta ez hori bakarrik, bilaketak ez dira formatara mugatzen, **bilaketa konbinatuak** ere bidera daitezke, **informazio lexikografikoa** baliatuta. Adibidez, kategoria gramatikal zehatz bat galde dezakegu, euskalki bat, jakite-arlo bat, erabilera-marka bat... edo horien arteko konbinazioa. Aukera ugari eskaintzen ditu bilatzaile aurreratuak gure beharretara hobeto moldatzeko.

**Mundu berri bat irekitzen digu bilaketa modu honek, hainbat eremutatik iritsi baikaitzke hiztegiara, Euskaltzaindiak araututako formen hiztegiara!"**

## 2. Andres Urrutia euskaltzainburuaren HITZAURREA

“Bigarrenez dator erabiltzailearen eskura *Euskaltzaindiaren Hiztegia, adierak eta adibideak*. Oraingoan, alabaina, berritua eta zabaldua dator. Izan ere, inon badago akademia baten zereginik behinena, hitzen erresuman dago, hitz horiek baitira hizkuntza baten muina eta bizkarrezurra. Garai hauetan, haatik, hitzak modu askotan ditugu hizpide eta letra idatzia eta inprimatuaren gainetik, euskarri digitaleko letrak ere ari zaizkigu nagusitzen. Hortxe dago bigarren argitaraldi honen berrikuntzarik

nabarmenena, alegia, Euskaltzaindiak lehen aldiz eskaintzen du bere *Hiztegia* paperean zein euskarri digitalean.

Hona hemen, erabiltzailearen eskura, Euskaltzaindiak urte luzetan ondutako ahaleginen emaitza, moldatua eta itxuratua. Hartara, aspaldiko gogoia eta ametsa bete du euskararen Akademiak, eta bere lexikografia proposamena gizarteratzen du berriro.

Baliabide ugarien bidez hedatzea, alabaina, ez da nahikoa edukia bera eguneratzen eta egokitzen ez den neurrian. Horrexegatik, Euskaltzaindiak berebiziko lana egin du luzaroan erreferentzialtasuna izan duen *Hiztegi Batua* osorik ager dadin hemen, adierez eta adibideez hornitua.

Aurrerantzean, beraz, Euskaltzaindiak, euskara batuaren zereginei dagokienez, beste aldi batean ikusten du bere burua, etengabeko prozesu batean osatuko baitu *Euskaltzaindiaren Hiztegia*, etorri desberdinetatik datozkiokeen iturriak aintzat hartuz. Horra hor, besteak beste, hizkuntza baten bizitasunaren eta eraberritzearen seinale zalantzagabekoak.

Aldiotan, euskara hainbat arlotan bizi eta egunero erabiltzen da. Erabilera horien lekukotzak bildu eta bere lanetara ekarri ditu aspalditik Euskaltzaindiak, euskalgintzan ari diren hainbat eragilerekin lan hitzarmenak adostuz. Horren harira, aipagarri dira Akademiaren lan zabalak, hiztegi honi oinarri sendoak eman dizkietenak, dela hizkuntzaren tradizioan (*Orotariko Euskal Hiztegia*), dela egungo errealitatean (*XX. mendeko Euskararen Corpus Estatistikoa* eta *Lexikoaren Behatokiaren Corpora*), dela hizkuntzaren esparru zabalean (*Hiztegi Batua*).

Horiek ere, lehendabiziko aldiz estekaturik kausituko ditu hiztegi honen hartzaileak, euskarri digitalaren bidez. Hortaz, Euskaltzaindiaren informazio lexikografiko osoa begi kolpe batez eskuratuko du, arin eta eroso.

Horiek guztiak eta bestelakoak ere erabili dira gaur eskaintzen den hiztegi hau egiteko eta euskaldun orori tresna



esanguratsua eskaintzeko, euskara bere eguneroko bizitza eta beharretan erabil dezakeena. Euskalkietatik nahiz egungo bizimodutik euskararen ohiko moldeetan errotu diren hitz horiek sistematizatzen eta egokitzen saiatu da Euskaltzaindia bertan eta horretara dator sorreratik bertatik egin duen lexikografia arauemailearen lana. Horren segidakoa da hau, betiere euskalgintzan ari direnei norabide zuzurra eman nahian eta, zer esanik ez, horiei ere eginahalak eskatuz, hiztegi hau hobetzeko orduan eurok baitira egilerik berariazkoenak.

Nolanahi ere, lan hau ez da pertsona bakar baten emaitza, lantalde oso batena baino. Hurrenez hurren, partaide eta egile izan dira euskaltzain oso (oraingoak eta lehenagokoak), oho-rezko, urgazle, laguntzaile eta abar, Akademiaren zerbitzuetako norbanakoekin batera. Horien gertuko, *Euskaltzaindiaren Hiztegia* aurrera eramateko Osoko bilkuraren esku ematea izan duen Batzorde Ahaldunduaren kideak eta aldameneko Egitasmoaren parte-hartzaileak, argitaratze bidean aritu izan direnak ere alboan utzi gabe.

Aurreko argitaraldian adierazi nuen bezalaxe, guztiak dira/guztiok gara hiztegi honen erantzule. Guztiok eta hamaikatxo erakunde publiko eta pribatu ere, Euskaltzaindiari sostengu materiala ematen diotenak.

Etorkizuna dugu eginkizun eta egite horretan, bistan da, Euskaltzaindiaren ehun urteak laster etorriko zaizkigu. Mendurren horren itxaropenaz aurkezten dio Euskaltzaindiak bere ahaleginen emaitza euskal gizarteari, eta gogoratzen dio hortxe dagoela, lanean eta jardunean, Euskal Herriko lurraldeetan euskara bera izan dadin orain eta geroan ere, tresna duina eta baliagarria euskaldun oroentzat. Orobat, berea galdu gabe, bestelako hizkuntzak eta kulturak bizi eta barneratu nahi dituen euskal gizarte batentzat.”

Jabetuko zarenez, irakurle, izugarrizko ahalegina egin eta hiztegi eder bat jarri du gure esku Euskaltzaindiak oraingo honetan. Argibide ugari eskainiko dizkigu euskara lantzen eta gaur egungo premietara egokitzen ari garen guztioi. Zalantza asko argituko dizkie, baita, euskara irakasten ari diren irakasleei ere. Zer esanik ez, urrats sendoa gertatuko da euskara estandar bihurtzeko bidean.

*Patxi Uribarren Leturiaga*